



Euskara

Hasiera-hasieran, animaliek zuten jakinduria eta ezaguera, Tirawa Berdingabeak ez baitzuen gizakiekin zuzenean hitz egiten. Animalia jakin batzuk bidaltzen zituen haiengana piztien bitartez agertzen zitzaiea azaltzeko, eta gizakiek abere horiengandik, izarrengandik, eguzkiarengandik eta ilargiarengandik ikasi behar zutela ulertarazteko.

*Letakots-Lesa*

*Pawne tribuaren nagusia*

---



Naturarengandik hain urrun gelditu den gizarte honetan, zaila da animaliek eta gizakiek noizbait planeta berdinkide gisa partekatu dutela pentsatzea.

Erakusketa honetan garai haietara atzera egin nahi izan dugu eta bizikidetasun horrek espezie bietarako izan duen garrantziaz jabetzeko aukera emango digun bidea irudikatu. Historiaurretik, hots, animaliek eta gizakiek alegiazko eta misterioz jositako munduan batera bizi izan zirenetik, kristautasuna Europan hedatu zen arte, orduan, animaliak egunerokotasunean baliagarriak izateari utzi eta erlijiozko zein moralezko ikur bilakatu baitziren.

Edozein lekura begiratzen badugu ere -Mesopotamia, Egipto, Asiria, Grezia, Erroma, Persia edo Europa kristauaren erdi-erdira-, gizakiaren eta animalien historia ezin daitezke inola ere banatu.

Bilbao Bizkaia Museoak erakundearen sorrerak eragina handia eta probetxugarria izan du Animalia Artean | De la Prehistoria a la Edad Media erakusketaren produkzioan. Instituzio honek Euskal Museoa eta Bilboko Berreginen Museoaren arteko elkarlana sustatzeko etorkizun handiko bidea zabaltzen du. Une honetan, kolaborazioa Historiaurreko sailean erakusten diren pieza guztien maileguan islatu da.

Bestaldetik, aurrez gertatu den moduan, Eskulturaren Museo Nazionalarekin egindako elkarlanari esker erakusketa berria burutu ahal izan dugu. Bere lagatako lanak gabe ezinezkoa izango zatekeen animaliek antzinatean eta kristautasunaren hasieran izan zuten garrantzia azaltzen duen ikuspegi artistiko eta narratibo zabala erakustea.

“...modu misteriotsuan unibertso osoarekin konektatuta  
gaude, unibertsoaren eboluzioa gudan islatzen den modu  
berean, gu ere berarengan islatzen gara...”

*Václav Havel 1994*

*Filadelfiako Askatasunaren Domina*

---

# OSOTASUNAREN ZATIA



zagutzen dugun artelan zaharrena  
Historiaurrekoa da. **Goi-**  
**Paleolitikoan** agertu zen, duela  
32.000 urte inguru. Lehen  
irudi horietan animaliak dira nagusi. Eskultura  
eta erliebe txikiak, eta batez ere, labar-pinturak  
historiaurreko gizakiek eta animaliek partekatzen zuten  
egunerokotasunari buruz mintzatzen zatzaizkigute:  
zaldiek, bisontek, uroek, oreinek, basahuntzek, mamutek,  
hartzek, felido handiek edo errinozeroek.

Ezinezkoa da historiaurreko arbasoek animaliak modu horretan eta leku horietan zergatik irudikatu zituzten jakitea. Horren inguruko teoria asko dago: ehiza bermatzeko arte magikoa izan daitekeela; urritzen hasiak ziren espezieak erakartzen saiatzeko egin zitzaizketela; beste gizatalde edo tribu batzuei animalia-taldeei buruzko informazioa uzteko balio zezaketela; edo emankortasunarekin zerikusia zuen erritualen zati izan zitezkeela.

Erantzuna edozein izanda ere, artelanok gizon eta emakume haiek behatzaile handiak izan zirela argi eta garbi uzten dute. Animaliak irudikatzeko erakutsitako naturalismo eta biziak gizakiek eta animaliek planeta honetan hainbatik hainbatean bizi zirela erakusten dute, hots, elkarrekin Naturaren misterioaren eta magiaren parte zirela.



## Lumentxako lauza txikia

Lauza txiki honetan bi zaldi ikus daitezke. Erregistro bi eratuz kokatuta daude, hau da, bata bestearen gainean. Erliebean deigarriena zera da: artistak nola aprobetxatu zuen harriaren ertza, gaineko animalia-ingerada lortzeko. Zaldiaren lepoak eta zerrak harriaren goialdearekin bat egiten dute eta ondorioz, burumakur agertzen da irudikatuta.

Bestalde, bi figurak oso eskematikoak dira. Angelu askoko lerro zuzenez zehaztuta daude. Gutxi dira animalien anatomia osatzen duten zati biribilak eta horiek goiko aldeko zaldian bakarrik agertzen dira. Eskema hori garai horretako irudikapen espresionisten joerarekin bat etorriko litzateke.

Lauzak Lekeitioko Lumentxa kobazuloaren izena dauka, non J. M. Barandiaranek aurkitu zuen. Jatorrizkoa **Madalen aldikoa** omen da, hots, duela 14.500 eta 12.500 urte bitartekoa.



## **BOLINKOBAKO KONPRESOREA**

Jatorrizko konpresorea, Basahuntzena izenez ezagutzen dena, Abadiñoko Bolinkoban aurkitu zen. Horrela ezagutzen da aurrealdean bi basahuntz piriniotar daudelako irudikatuta. Konpresoreak harriak kopatzeko edo zanpatzeko erabilitako Historiaurreko erremintak ziren, eta horien bidez, era guztietako tresnak egiteko baliagarriak ziren harri-puska zapalak edo xaflak lortzen zituzten.

Erreminta mota honen eguneroko erabilpenaren ondorioz, konpresore honetako irudikapen artistikoaren bi aldeetan ikus daitezkeenaren antzeko markak agertzen ziren. Piezaren erdialdean, kolpatua izan ez den zati leunean, basahuntz piriniotar biren profilak hauteman daitezke. Lehena ezkerrean dago, eta bigarrena bere eskumako aldean, aurrekoa baino apur bat gorago.

Euren kokapena eta bi animalien ezaugarri anatomikoak kontutan izanda, J. M. Apellanizek estalaldi baten eszena izan daitekeela iradoki du. Bigarren basahuntza lehenengoaren atzean dago, bera baino apur bat gorago. Gainera, burua atzerantz botata du eta adarrak behekoarenak baino nabarmen luzeagoak dira –arren berezko ezaugarria-. Azkenik, buruaren azpialdean bizar sotila ikus dakioke eta, animalien araldiaren seinale, buztana altxatuta du.



## Atxetako felidoa

Animalia-buruaren itxura duen hareharrizko uharri original hau Foruako Atxetako kobazuloan agertu zen. Aurkitu zenean, **Paleolitikoko Madalen arokoa** zela zehaztu zen, hau da, duela 14.500 eta 12.500 urte inguru taillatua izan zela.

Dirudienez, Paleolitikoko artistak forma irregularreko ertz laua aukeratu zuen eta, ukitu arinak emanez eta apur bat leunduz, animalia baten buruaren itxura eman zion. Begia zulo natural bati egokitu zaio eta ahoa golpe txiki batekin landu da.

Tailla garaiko irudikapen artistikoen joeretatik urrun geratzen da, hots, naturalismotik eta eskematizaziotik oso urruti. Eskultorea nahita zalantzarria izan da. Piezari oinarrizko forma ematera mugatu da. Irudikatu nahi izan zuen animalia ez du argitu. Honen inguruko teoria bat baino gehiago dago. Itxura kontutan hartuz, felido bat izan liteke, baita ardia edo bildotsa bezalako etxe-aberea ere. Hala ere, pieza noizkoa den aintzat izanda, katuaren antzekoa izan daiteke bakarrik, gainontzeko animaliak ez baitira askoz beranduagora arte etxekotu.

Zeuen onerako eultzitu,  
zeuen onerako eultzitu,  
idiak,  
zeuen onerako eultzitu.

Jango duzuen lastoa,  
zuen nagusientzako ale da.

Ez zaitezte nekatu, ondo da hemen.

Idiak, eultzitu.

*Herritarren abestiak. Paheriren Hilobiko testua*

*XVIII. Dinastia. Egipto*

---

---



# EZ SARA BERDINAK



uela 10.000 urte inguru, gizakien eta animalien arteko harremanak betirako bestelako bihurtuko zituen aldaketa hasi zen, hots, gizarte ehiztari/biltzailea artzain eta nekazari bilakatu zen.

Bizimoduaren halabeharrezko eraldaketa motel horren ondorioz, gizakiak animaliekiko zuen lotura aldatu zen. Abereak etxekotzeak elkarren arteko jokaera-patroia irauli egin zuen. Animaliek Historiaurrean izan zuten misterioa eta boterea galdu zuten.

Harreman berri horren gakoak kontrolean oinarritu zen, gizakia etxe-abereengan gauzatzen hasi zen nagusitasunean, alegia. Ordutik aurrera, gizakiek beren nahierara erabili zituzten animaliak. Jabetza bihurtu zituzten, aberastasun iturri eta gizarte-klase gorenaren ikur.

Hala ere, gizartea zibilizatzen zihoan heinean, Naturarengandik gero eta handiagoa bihurtzen zen banaketa etengabe horrek, gizakiarengan estutasun handia sorrarazi zuen. Apurka-apurka, ingurunea kontrolatzen hasi zen, baina ezinezkoa zen aurretik jakitea Naturak zer egin zezakeen, ezta euren menpean ez zeuden animaliek ere. Larritasun horri aurre egiteko, garai horretako artelaneetan agertutako mito eta erritualak asmatu zituzten.



## ARTZAIN-ONAREN erliebea

Artzain Onaren gaia edo Moskoforo -Grezian deitzen zen moduan- behin eta berriro agertzen da artean. Hasiera baten, Ekialde Hurbileko artzain-gizarteetan aurkitzen zen, Grezian eta Erroman ondoren. Azkenik, kristau imajinagintzaren parte izatera heldu zen. Gaiaren esanahi sinbolikoak patriarkagizarteekin du lotura sendoa, horietan hiritar otzan guztiak agintariaren menpe baitaude.


Hemengo honetan, argi eta garbi, erliebeko gaia kristaua da. Ecijako Santa Cruz elizan aurkitutako sarkofago paleokristau baten zatia da, nahiz eta bisigotiko goiztiarra izan daitekeen. Jatorrizkoa hilobiko aurreko aldean zeuden hiru eszenek osatzen zuten. Erdikoa da hemen ikusgai duguna. Bere ezker aldean Isaaken Sakrifizioa dago irudikatuta eta eskumako aldean Daniel lehoien zuloan. Multzoak Salbamenaren mezu sinbolikoa azaltzen du, hiletekin lotutako testuingururako oso gai egokia.

Imajina honetan, ardia lepoan daukan artzaina Kristoren irudikapen sinbolikoa da. Artzainen gizarte primitiboetan bezala, Kristo Salbatzailea eta herritarren gidaria da, euren “gubernari” bakarra.

“Itsasontziak Punt Herriko gai miragarriekin astunki betez:  
Jainkoaren Lurreko egur aromatiko guztiak, mirra-erretxina  
mordoa, mirra-zuhaitz gazteak, ebanoa, boli hutsa,  
Amuko urre orlegia, paradisuko meliako zura, hesyt-  
egurra, ibemut-intsensua, intsensua, begietarako margoa,  
tximinoak, babuinoak, txakurrak, hegoaldeko panteren  
larruazalak, eta [laburbilduz] morroiak eta haien semeak.  
Hasiera-hasieratik, inoiz ez zen horrelako ezer [beste]  
errege batentzako ekarri.”

*Hetshepsut errege zenean, Punt Herrira egindako bidaiak. Deir  
el Bahariko tenpluko inskripzioak. Egipto*

# Leku OROTAN



istoriaurrean, animaliak gizakien bizitzaren eta euren irudikapen artistikoen ardatz izan ziren.

Sedentario eta artzain/nekazari bilakatzearekin batera, animaliak gero eta ohikoagoak bilakatu ziren gizakien bizitzan.

Abereak etxekotzeak eguneroko zeregin askotarako erabiltzea ahalbidetu zuen. Uztarria asmatu zenean, idiak gurdiak tiratzeko erabiltzen hasi ziren. Ganadua eguneroko mantenurako funtsezkoa zen. Animaliak

elikagai ziren eta gainera, haien koipea, larruazala eta artilea jantziak eta beste era bateko beharrizanei erantzuteko balio zuten materialak egiteko erabiltzen ziren.

Animalia batzuk ondasun exotikotzat zituzten eta beste batzuk luxuzko produktu gisa ustiatu ziren: bolia, nakarra, lumak, belakiak, perlak... eta murexa. Azken hau antzinateko tindagai preziatuena, hots, purpura kolorea, lortzeko erabiltzen zen itsasoko barraskilo klase bat zen.

Aurrekoaz gain, animaliak behin eta berriro agertu zituzten artean, bai egunero erabiltzen ziren ontzi eta olio-lanparetan, zein hilobietako hatuetan, edozein leku edo objektuetan animalien irudiak ikus zitezkeen.



## Vaŕioko basoak

Jatorrizko basoak **Mizenasko** hilobi baten aurkitu ziren, Espartatik gertu. K.a. XV. mendearen lehen erdialdekoa direla uste da. Kretatik zetorren hatu aberats baten ondoan aurkitu zenez, Mizenasko urrezko lanak edo Kretatik datozen diren zalantzan dago. Dena den, Brontze Aroko artelanen artean, urrezko edalontzi hauek dira gehien landu direnetako bi.

Lehenengo basoan, baso bukoliko izenaz ezaguna dena, hiru eszena daude irudikatuta. Erdikoan behi bat ikus daiteke zezen bat bereganatzen saiatzen. Ezkerraldean, arnasestuka dabilen bitartean burua altxatzen duen zezenari gizon bat atzeko ezkerreko hanka lotzen ari zaio. Eskuman, azkenik, hirugarren zezen bat lurra usaintzen dabil.

Bigarren edalontziak, bortitzenak, non hiru zezenak protagonistak diren eszena ditu. Erdialdekoa sare baten bidez harrapatua izan da. Eskumako aldean, beste bat dago ihes egiten saiatzen. Honen ezkerraldean, ihesean dabilen beste hirugarren batek bi pertsoneri aurre egiten die. Bata zezenaren adarrean sartuta dago, bestea airean hegan, erasoia jasan ostean.



## Tripodedun basoa

Brontze Aroan zehar, Itsas Estiloa izenaz ezagutu zen zeramika apaindura mota garatu zen Kretan. Bertako merkataritzaren garrantzia eta eragina kontutan hartuta, estilo berri horren berezko motiboak Egeoak hartzen zuen zonalde guztian hedatu ziren.

Itsas Estiloaren dekorazioa, izenak berak adierazten duen bezala, inguruko uretako bizitzan inspiratuta zegoen. Horrela izanik, erabiltzen ziren motibo nagusienak olagarroak, izurdeak eta kolore biziz irudikatutako antzeko izakiak ziren. Horiek denak itsasoaren hondoa berregin nahi zuen irudiaren gainean agertzen ziren. Naturalismo handiz egindako irudikapenak dira, non figurak benetan uretan flotatzen dabiltzala ematen duen.

Animaliak **Knososekoa** bezalako kretar jauregieta friso apartetan agertzen direnen antzekotasunean nabaritzen da Kretako eragina.





## ARGI-ONTZIA

Argi-ontziak Antzinaroan argi artifiziala lortzeko erabiltzen ziren harrizko, metalezko edota terrakotazko lanpara txikiak ziren. Oso antzinatik erabiltzen ziren arren, Erromatarren Garaian bihurtu ziren ohikoak, orduan hasi baitziren kopuru handiak serie-fabrikatzen.

Egunero erabiltzen ziren objektuen artean ohikoenetako bat zen. Lau atalek osatzen zuten: erregaia jartzeko andela, honen estalki biribila, aurreko aldeko mukia eta garraiatu ahal izateko heldulekua.

Erregaia, eskuarki, oliba olioak zen. Estalkia mota guztietako motiboak erabiliz dekoratu ohi zen, bai etxeak abereen irudiekin –hemengo honetan, esaterako–, zein eszena erotikoeekin. Moldeak erabiliz fabrikatzen eta dekoratzen ziren, horrela, berauek ekoiztea oso merkea zen.



## Mizenasko plaka

Dekorazio plaka txiki hauen jatorrizkoak Mizenasco hilobi batean aurkitu ziren. Dirudienez, emakumeen jantziak dekoratzeko erabili ziren. Mizenastar eliteko hiru emakumeen hilobietan agertu ziren. K.a. 1600 eta 1450 urteen artean datatzen ohi dira.

Hemengo hauetan ikus daitekeenez, apaingarriek forma ezberdinak dituzte. Batzuk biribilak dira eta, animalia, hosto eta loreen irudiak dituzte. Hemen olagarro eta tximeletak ikus daitezke. Beste batzuek forma ebakiak dituzte, igeri egiten dabilen olagarro honen bezala. Azkenik, badira kretar eragin argia duten piezak ere, ikusgai duguna bezala, santutegi batekoa non alboetan bi txori eta goian “**donespenaren adarrak**” izeneko dekorazioa ikus daitezkeen.



Bizitzako arriskurik handiena honako honetan datza:  
gizakiok arimez elikatzen garela. Hil eta jan behar ditugun  
izaki orok, jantziak egiteko suntsitu eta akabatu behar  
ditugun kreatura guztiek, arimak dituzte, guk bezalaxe,  
gorputzarekin batera bizia galtzen ez duten arimak, eta  
beraz, euren gorputzak indarrez hartu izanagatik gure  
kontra mendeku egin ez dezaten, baretuak izan behar dira.

*Ehiztari inuit baten hitzak*

---

# Εhιζτარი ehizatua



hizaldiek duten konnotazioa soziala, ekonomikoa edota aisia hutsezkoa dela eta, jarduera mota honen irudiak etengabe agertu izan dira artearen historian.

Nekazaritzak eta abeltzaintzak mundu basatia eta zibilizatua elkarrengandik banatzea eragin zuten. Jarduera biak sortu zirenetik, zibilizazioa animalia arriskutsuengandik babestu behar izan zen. Etxeko abereak mehatxu ziren harrapariengandik zaindu beharra zegoen,

baita laborantzak hondatzen zituzten belarjaleengandik ere. Ehiza, orduan, –Historiaurrean bezala– bizimodua izatetik, besteak beste, kontrolatzeko modu izatera igaro zen.

Arlo hauetari ehizak berak sorrarazten duen gozamena gehitu behar zaio. Gizakiak, bere buruargitasunaz baliatuz, Natura menperatu dezakeelako ideiarri lotutako ekintza, hain zuzen ere. Horrela izanik, ehiza antzinateko eliteen jostagarri nagusienetako bat izan zen. Ez hori bakarrik, gizarte-hierarkia zorrotza mantentzen lagundu zuten ideien eta doktrinen garraiobide ere izan zen.

Asiriarrak euren boterea goratzeko egindako ehizaldiengatik ospetsuak izan baziren, greziarrek entrenamendu militar gisa eta helduarora igarotzeko erritual bezala erabili zuten.

Azkenik, ezin ahaztu dezakegu antzinako Erromako zirkuetan erabili zen animalia eskerga. Ehizaki sorta handi horien ondorioz, Europako, Afrika iparraldeko eta Ekialde Hurbileko espezie ugari desagertu egin ziren.



## Basastoen ehizaldia

Etsai arabiar eta elamiarren

koalizioa garaitu ostean, **Asurbanipal** errege asiriarrak jauregi berria Ninive hiriburuan eraikitzeko agindua eman zuen. Iparraldeko Jauregia izenez ezagutzen den eraikinak asiriarr artearen erliebe famatuenetako batzuk jagoten ditu.

Areto nagusi baten ehizako eszena ezberdinak irudikatzen zituzten panel narratiboak aurkitu ziren. Lau hormetan erregea ageri zen, era askotako animaliak harrapatzeko metodo desberdinak erabiltzen: lehoiak, gazelak, oreinak eta –zati honetan ikus daitekeen bezala– basasto edo onagroak.

Mota honetako animaliak Elam herrialdearekin zerikusia duten testu asiriarretan bakarrik aipatzen dira. Bada hemen irudikatutako ehizaldiak konkistatu berria izan zen lurraldean egindakoak izan zitezkeela uste duenik, baina zoritxarrez, ez dago teoria hori baieztatzeko modurik.

Jauregi honetako beste erliebe batzuetan bezala –lehoi eme zaurituarenean, adibidez–, hain da deigarria astoen naturalismoa, ezen batek baino gehiagok Asiako basasto jakin batzuk direla zehaztu nahi izan du.



## EHIZARAKO ADARRA

Ehizarako adar edo olifante hau bere jabearen izenaz ezagutzen da, Gaston de Bearnenena. Olinfanteak elefanteen letaginak erabiliz egindako haize-instrumentuak ziren. Oro har, abisuak emateko edo arriskuez ohartarazteko erabiltzen ziren.

Dirudienez, Gaston de Bearnen olifante originala Italiako hegoaldeko lantegietan egin zuten, XI. Mendean, Salerno hirian, hain zuzen ere. Hala ere, irudiak oinarritzat hartuta, bada bizantziar jatorrizkoa edo are ekialderagokoa dela uste duenik ere.

Adar osoa estaltzen duen dekorazioa lau erregistrotan banatuta dago. Lehenengoan, bi otso edo lehoik **Biziaren zuhaitzetik** jaten dute. Eszena bi oihal-etxola diruditenek osatzen dute. Bigarren erregistroan, Herkules eta Gilgamesh heroi mesopotamiarrak izan litezkeen bi gizakiren figurek lehoia eta oreina ematen duten animaliekin borrokatzen dira, zeinak txakur baten erasoak pairatzen duten. Erregistro beraren aurreko aldean, arrano batek bildots bat sostengatzen du atzaparrekin. Azpian, iturri batetik edaten ari diren bi hegazti mitologiko agertzen dira, eta ondoan, ehizatu berri dituzten animalia



bana daramaten pertsonaia bi. Azkenik, hirugarren erregistroan, aurrez aurre dauden bi dragoi Biziaren zuhaitzetik elikatzen dira.

Eszenek ehizarekin zerikusia dute, baina era berean, Erdi Aroko kristau imajinagintzan berezkoak diren gaiak ere agertzen dira, Biziaren zuhaitzak eskainitako elikagaia kasu.



## Mizenasko sastakia

Bi sastaki hauek Troia aurkitu zuen **Heinrich Schlimann** abenturazaleak bildutakoen erreprodukzioak dira. Antzinako **Mizenasko** gizonezko biren hilobietan agertu ziren. Aurkikuntzen arabera, 1600 eta 1450 urte bitarteko, Mizenas gobernatu zuen eliteko bi kiderenak izatea da litekeena.

Lehenengoan, lehoi-ehizaketa bat agertzen da. Lantza eta ezkutuak daramatzaten eta gona motzak janzten dituzten gizonek euren armak jaurtitzen dituzte. Bitartean, bi lehoik xaflaren muturrerantza ihes egiten dute. Bestaldean, sastakia antilope bat ehizatzen dabiltzan lehoiek dekoratzen dute. Animalia hauek irudikatzen duten harrapaki eta ehiztari arteko dikotomia ohiko mekanismo sinbolikoa izan zen mizenastar artean.

Bigarren sastakian, beste ehizaldi bat ikus daiteke. Honetan, katu bat hegazti batzuen atzetik dabil egiptoar eragin argia duen paisaia batean. Dekorazio mota honek Brontze Aroko Mediterraneoan existitu ziren merkataritza-harremanak estuak izan zirela erakusten du, non Kreta bitartekari izan zen.



Horus zezen ahalduna, Maaten maitea.

Bi andrazkoena. Suge krudelarekin goratua, botere

Apartekoa.

Horus urrezkoa, urteetan Biribila, bihotzak bizirik

iraunarazten dituen.

Ihi eta erlearena, Aakheperkare, «Handia da Raren Karen garapena»

Raren semea, Tutmosis «Totek sortu nau», betirako eta betikotasun guztian.

*Turiren inskripzioa*

---

---

“...Lehoia Sharuen aurka

Zezen boteretsua Kushen kontra...”

*Ramses II.aren omenezko inskripzioa*

---

---

# NATURAREN ERREGEAK



nimalien indar sinbolikoa gizakiek  
Historian zehar etengabe erabili  
duten errekurtsua izan da.

Boterearen eta animalien arteko  
aliantza egonkorrenetako bat zibilizazioaren hastapenetan  
eraiki zen.

Buruzagi eta erregeekin erlazonatutako lehenengo  
animalia zezena izan omen zen, gizonezkoen indar eta  
emankortasunaren ikur gisa. Sinbolismo sendo hori  
ia antzinako zibilizazio guztietan agertu zen. Egipton

faraoiak “zezen boteretsu” izenaz ezagutarazten ziren. Kretan euren eginkizuna eztaba daezina zen eta Antzinateko mito ospetsuenetako bat, Minotauroarena alegia, sorrarazi zuen.

Lehoiak botereari eta indarrari lotutako sinbolismoa partekatu zuen aurrekoarekin, nahiz eta neurri txikiagoan izan, eta ez zen zezena bezain beste agintariaren ikurrarekin erlazionatu.

Arranoa ere boterearen sinonimo bihurtu zen kultura askotan. Sinbolismo hori, bereziki, Grezian izan zen garrantzitsua, non Olinpoko erregea zen Zeusi berari laguntzen zion. Baina, batez ere, Erroman izan zuen oihartzuna, ejerzitoen eta inperioen konkisten ikur izan baitzen. Hain garrantzitsua bilakatu zen, ezen Erdi Aroko Europan Erromako Inperio Santuaren barruan, eta Aro Garaikidera arte ere, irudia boterearekin lotzen jarraitu zen.

Arranoarekin batera, zaldia egiteko handia izan zuen gizartearen goi-mailekin erlazionatutako animalia gisa. Ekialde Hurbilean eta Egipton berandu sartu zen arren, oso garrantzitsua izan zen. Elitekoak ziren zaldia zituzten ia bakarrak. Horrek aristokraten eta zaldien arteko harreman estuak sorrarazi zituen, Grezian eta Erroman gertatu zen bezalaxe, non etxe oneko gazteek hippei eta equite izenaz ezagutzen ziren, hurrenez hurren.



## Lehoi emea zauritua

Asiriako Asurbanipal erregeak K. a. 652 eta 646 urteen artean bere Jauregi berria eraiki zuen. Bertako areto baten, errege-ehizaldi bat irudikatzen zuen erliebe-multzoa zegoen.

Gertaerak sekuentzia moduan ematen dira, ehizaren antolaketatik hasita lehoi ar eta eme kopuru handia hiltzeak sorrarazten duen une gorenera arte. Hiltzorian dauden animalien irudien naturalismoa izugarritzkoa da. Geziz josiak, odola ahotik dariela edota erabat suntsituta, lurreen hilda, monarkak Naturaren gainetik duen botere absolutua eszenaratzen dute.

Irudi guztien artean lehoi eme zauritua nabarmentzen da. Geziek kalte handia egin diote eta ez da atzeko hankak mugitzeko gai. Oso gertu duen heriotzatik ihesari emateko ahalegin handia egiten ari dela dirudi. Animaliairen naturalismoak, narratibaren indarrak eta eszenak transmititzen duen emoziozko sama gogorrek Asiriako artearen momentu goreneta baten bihurtu dute.



## ΠΑΝΑΘΗΝΑΪΚΑ

Partenoiaren barrualdea dekoratzen zuen Pananteneen Frisoan, Atenasko hiritarrek Atena jainkosaren jaiotza ospatzeko urtero antolatzen zuten prozesioa zegoen irudikatuta.

Erliebearen zatirik handiena zaldizko gizonek betetzen dute: hippeiek. Antzinako Atenasen, zaldi bat izan ahal zutenek hiri-estatuko bigarren klase-soziala osatzen zuten.

Gizarteko maila horretakoa izatea inbidiagarria zen eta euren zaldiak estatus eta aberastasunaren ezaugarri ziren.

Partenoiaren dekorazioan nonahi ikus zitezkeen zaldiak.

Eraikuntzaren apaingarri ziklo guztiak osatzen zituzten.

Zaldiak etengabe agertzeak atenastar aristokraziak zuen

garrantzia gogorarazi nahia adieraz zezakeen, nahiz eta

hiriko gobernu demokratikoa izan. Atena, jainkosa

garrantzitsuena zen. Poseidon –zeinaren ikurra zaldia zen–

hierarkian bigarrena zen, noblezia eta itsasoarekiko lotura

estua zuelrik.





## DORUS

Egiptoko faraoiek Horus jainkoa –belatza– erregeen artean sartzen zuten. Haren sinbolismo indartsuak, zeina momentuko erregeari uztartzen zitzaion, maisutasunez azaldu zen Osirisen elezagarrean.

Osiris, herriari Niloko lur emankorrek lantzen irakatsi zion Egiptoko faraoi mitikoa, bere anaia Seth bekaiztiak akabatu zuen. Arreba eta emazte zuen Isisek zati-zati eginda eta Egipton zehar sakabanatuta zegoen gorpua bildu egin zuen. Berak eman zion berriro bizia eta bion semea, Horus, sortu zuen. Honek osaba Sethi egundoko borrokaldi baterako erronka bota zion. Horusek Seth garaitu zuen eta Egiptoko errege bihurtu zen. Osiris aita, berriz, Beste Munduan izan zen errege betiko.

Istorio honen arabera, Horus bizirik eta momentuan agintean zegoen faraoiaren ikurra izango zen, zeina hil ostean Osiris izatera igaroko zen.




## Zezena

Mizenasko egindako indusketetan

H. Schliemann abenturazale alemaniarrek artelan honen jatorrizko pieza aurkitu zuen. Hilobi baten zilarrez eta urrez egindako bi zezenen buruak agertu ziren, zeinak bekokian erroseta eta adarren artean aizkora bikoitza zuten.

Labrys izenaz ezagutzen den aizkora bikoitza oso ohiko ikurra zen Kretako jauregietan. Bere esanahia ezezaguna da: batzuetan, zezenaren jainkoitasunaren ikur gisa ulertu nahi izan da; bestetan, aldiz, sakrifizio-errituetan erabiltzen zen aizkora bezala.

Bestalde, badirudi zezena Kretako erritu minostarreko animaliarik garrantzitsuena izan zela eta Mizenasek zeremonia horretako zenbait alderdi oinordetzan hartu zituela, hori ikus baitaiteke garaiko artean egiten diren zezenaren inguruko erreferentzia askotan.



Zu egongo zara nire lekuan, nire ordezkari, beraz, zutaz esango da: Thot, Raren ordezkoa eta nik bidalaraziko ditut zu baino handiagoak direnak [mezulariak]. Eta horrela Thoten ibisa bizi izan zen...

- Gainera, zeruak zure edertasun eta distiraz bilduaraziko ditut – eta Thoten ilargia sortu zuen.

- Eta Haunebun ibiltzeko gaitasuna emango dizut, eta orduan, Thoten babuinoa sortu zuen eta bisirra izatera heldu zen.

*Zeruen Liburua. Zeruko Behia 71-74*

*Egipto*

---

# Jainkotasunen itxurak



Jainko-jainkosak eta animaliak, ikuspuntu sinboliko batetik, beti ibili izan dira batera. Antzinako Egipton jainkotasun bihurtutako kreatoretatik hasita, Erdi Aroko Europan animalien eta erlijioaren artean ezarritako sinbolozko eta moralezko aliantzak arte, planeta osoko kulturek, mundu basatian oinarrituta forma eman diete euren sinismenei.

Antzinako egiptoarrek euren jainkotasunak ezagunenak zituzten animalien itxurarekin sortu zituzten, euren

jokabide naturalak pertsonifikatuz eta Naturako arauaren mailara igoz. Grezian eta Erroman ere animaliek jainko-jainkosak lagundu zituzten, euren botere eta egitekoen ikur gisa. Jainkotasun bakoitzaren agintaritzari itxura emateko erabili ziren.

Era berean, kristauak elkarketa honetaz baliatu izan ziren. Batzuetan, gizartean jadanik ezarritako formulak erabili zituzten –bildotsaren edo artzain onaren irudiak, adibidez–; bestetan, etikazko eta moralezko mezu berriak zabaltzeko, esanahi eta lotura berriak bilatu zituzten.

Antzinateko jainkotasun eta animalien arteko aliantzari dagokionez, sahiestu ezin daitekeen beste alderdi bat sakrifizioei buruzkoa da. Gizateriaren hastapenetatik, animalien sakrifizioak erritu erlijiosoen funtsezko zati izan ziren. Jainko-jainkosei atsegina eman eta berauek baretzeko, gizakiek, bereziki, baliagarrienak zituzten basapiztiak eskaini zizkieten: zezenak, idiak, ardiak, ahuntzak eta bildotsak.



## ISAAREN SAKRIFIZIOA

Pieza hau eta erakusketa honetan ikusgai dagoen Artzain Onaren panela multzo bereko artelanak dira. Bi erliebeak, Daniel lehoien zuloan zegoenekoa irudikatzen zuen hirugarren batekin, Ecijan aurkitutako sarkofago baten aurreko aldea osatzen duten beste hiru panelen kopiak dira.

Eszenaren erdian, sakrifiziorako aldarearen alboetan, Abraham –ezkerrean– eta Isaak –eskuman– daude. Bakoitzaren gainean euren izena irakur daiteke grekoz idatzita. Beheko aldean, ezkerrean, hilko duten aharia ikus daiteke.

Antzinaroan etxe-abereak ziren sakrifizioetarako erabiltzen ziren animaliak. Eurek barik geratzea eta jainko-jainkosei oparitzea benetako sakrifizioa izaten zen familientzat –gaur eguneko esanahiarekin ulertua–, euren ondasun baliotsuenetako bat galtzen baitzuten.

Sakrifizio aproposena behi batena zen, oro har, azal argia zuena. Hala ere, ohikoena ardiak, bildotsak edo ahariak erabiltzea zen. Aukeratutako animalia motak eta kopuruak sakrifizioaren maila erakusten zuen, iturri zaharretan baieztatu daitezkeen bezala.



## Ra-Horajty

Erliebe hau **Abidos** hiri santuan zegoen Osirisen tenpluko dekorazioaren zatiaren kopia bat da. Ra-Horajty jainkoaren kaperan kokatzen da.

Ra-Horajty jainkoa Inperio Berriaren sinkretismoa zen, zeinaren bidez Ra eguzki-jainkoa Horus belatz-jainkoarekin elkartu eta “Bi Zeruertzetako Horus den Ra” bihurtu zen. Irudikapen honetan, berriz, ez da belatz itxurarekin ageri, hirutasun itxuraz baizik. Gizona Atum jainko sortzailearen irudia da; eguzki-diskoa Raren haragitzea; eta kakalardoa beste eguzki-jainkotasun bat den Jepriren irudia.

Atum panteoi egiptoarreko jainko garrantzitsuenetako bat izan zen. **Heliopolis** hiriaren sorkuntzari buruzko mitoaren arabera, berak sortu zuen bere burua oinarrizko muino batetik, eta gero, gainontzeko gauza guztiak egin zituen. Ra eguzki-jainkoen artean handiena izan zen, eguerdiko eguzkiaren irudikapena. Azkenik, Jepri kakarraldoa eguzkia zeruan zehar mugitzen zuten indarrekin erlazonatutako eguzki-jainkoa zen.





## Isis

Erliebe originalaren zati hau Isis jainkosaren kapera amaitu gabean aurki zitekeen, **Abidosko** Osirisen tenpluan. Tenplu honen dekorazio arras aberatsa, **Seti Ia** eta bere seme **Ramses IIaren** erregealdietan burutu zen, baina leku batzuetan ez zen guztiz amaitu –polikromia falta du. Erliebeen xehetasuna apartekoa da, jainkosak daraman burukoaren aberastasunean ikus daiteken bezala.

Ohikoa denez, Isis, Osirisen arreba eta emaztea, emakume gisa agertzen da hemen irudikatuta. Egiptoko errege-erreginen etxeko ikurrek ukitua dago. Alde batetik, burua **Egipto Garaiko** jainkosa den Nejbet saiaren hegoek estaltzen diote. Egiptoko hegoaldeko lurralde lehorretan, saiaren egote iraunkorrek animalia Egipto Garaiko jainkoa bihurtu zuen. Bestalde, hegalen gainean Egipto Beheko ikur den Uraeusen bertsio anizkoitza ikus daiteke. Aurreko kasuan gertatzen den moduan, Deltako paisai zingiratsuetako kobra **Egipto Beheko** babeslea bihurtu zen.



## GOPORRA

1830 urtean, nekazari frantziar batek objektu erromatarrak gordetzen zituen altxor aparta aurkitu zuen. Berthouvilleko Altxorra (Normandia) izenaz ezagutzen da eta zilarrezko 100 pieza txikik baino gehiagok osatzen dute. Gehienak basoak, platerrak eta goporrak diren arren, Merkurio jainkoaren imajina txikiak ere baditu. Hauek guztiak Galiako jainko garrantzitsuenari Canetumgo Merkurio Augusto tenpluan dohaintzan emandako objektuak dira.

Guzti horien artean, ikusgai dugun goporraren jatorrizkoa zegoen. Zilarrez egina zegoen eta erdian, Merkurio biluzik agertzen zen, klamidea bizkarrean, kaduzeoa esku baten eta diru-zorroa bestean zituela. Alde bakoitzean, koloma banatan, oilarra eta dortoka ageri ziren, eta azken honen azpian ahuntza. Guztiak jainkoarekin erlazionatutako animaliak ziren: dortoka bere oskolarekin lira sortu zelako, ahuntza abereen eta abeltzainen zaindari izateagatik eta oilarra egun berriaren mezularia zelako.



Orduan, etzanda zegoen txakurrak burua eta belarriak altxatu zituen, Argos txakurra, Odiseo pairatzaileak hezi eta hazi zuena, nahiz eta ezin izan zuen berataz gozatu, jainkozko Ilionera joan baitzen. ... Hantxe zegoen Argos txakurra etzanda, arkakusoz josia. Odiseo gertu ikusi zuenean, orduan bai, buztana mugitu zuen eta belarriak jaitsi, baina jadanik ezin zen bere nagusiarengana hurbildu. Orduan, urrunetik ikusi zuen Odiseok malko bat lehortu zuen... Eta Argosi, hogeitun ostean Odiseo berriro ikustean, herio beltzaren patua erauzi zion.

*Homero. Odisea XVII Kantua*

---

---

# Kideak



spaldi-aspalditik, gizakiek euren animaliei zieten maitasuna adierazi izan dute, hilobien, margoen, hilarrien, figura txiki edota literatur

testuen bidez.

Etxekotu zituzten animalien artean, otsoa izan omen zen lehena. Dirudienez, otsoak gizakien lagun egin ziren lehenak izan ziren, duela 15.000 urte inguru, eta txakur bihurtu. Gaur egun bezala, maskoten artean nagusienak izan zen. Hala ere, eta horretaz gain, bestelako egitekoak

zituzten eta gizakiei eguneroko zereginetako askotan lagundu egiten zieten. Abere-taldeak zaintzen zituzten, babesa ematen zuten, ehizatzen zuten..., lagun egiteaz gain, bestelako erabilgarritasuna ere bazuten. Orokorrean, Antzinarotik fideltasunaren sinonimo bilakatu ziren.

Badirudi duela 8.000 urte Ekialde Hurbilean lehenengo katuak hezi zirela. Hortik Egiptora igaro omen ziren, non maskotetan maitatuenak bihurtu ziren. Hain estimatuak izan ziren egiptoarren etxeetan, ezen hiltzen zirenean etxeko guztiek bekainak moztu behar zituzten, doluaren adierazgarri.

Ohiko bi maskota hauei beste hainbat gehitu behar zaizkie, batez ere gizarte maila gorenekoen artean. Antzinako Mesopotamian, animalia basatiak etxean edukitzea normala zen: lehoiak, gazelak edo antilopeak. Hegaztiak ere izaten zituzten askotan. Arruntenak bai usoak, beltzargak, ahateak edo antzarak bezalako animaliak izan ziren –oso ohikoak antzinako Grezian–. Baina kurriloak, koartzak edo pelikanoak, Mesopotamian arrantzan ibiltzeko erabiltzen zirenak, maskotatzat jotzen ziren; edo urretxindorrek, araba-zozoak, papagaiak edo mikak, zeinei gizakien ahotsak imitatzen irakasten zieten. Horiez gain, txitxarrak eta kilkerrak aipatu behar lirateke, baita sugeak ere. Izan ere, nahiz eta ohikoak ez izan, Grezian lehenengo bien kantua miresten zuten eta hirugarrenek erromatarren jakitokiak piztiarik eta sagurik gabe mantentzen zituzten.



## ANTZARADUN UMEA

Homerok Odisean idatzi zuenaren arabera, antzarak Peneloperi arima eta espiritua lasaitzen laguntzen zioten animaliak ziren.

Antzinako Grezian hegaztiak izan ziren maskoten artean bigarren animalia ohikoenak: antzarak bezalako etxe-abereak –lagun egitea baino zeregin gehiago zutenak–, edota papagaiak, erroiak eta arabazozoak, zeinei gizakien ahotsa imitatzen irakasten zitzaien .

Hegaztiak, maskota gisa, emakume eta umeekin lotzen ziren. Eskultura helenistiko baten kopia den irudi honetan ume bat ikus daiteke antzara bat itotzera olgetan. Pasadizozkoa den gai hau, non protagonistak haurrak edo zaharrak izaten diren, oso erabilia izan zen aro helenistikoan, eta horrela erakusten dute eszena berdinari jarraituz egindako bertsiio ugariak.



## Bastet

Egipton gehien irudikatutako etxe-  
aberea katua izan zen. Oraingo honetan, Parisko Louvre  
Museoan dagoen **Saistar Aroko** pieza baten kopia ikus  
dezakegu.

Eserita dagoen katu harro eta lirain baten itxurako  
zinoparia da. Hor zenaren seme Mersopdu izenekoak  
oparitu omen zion Bastet jainkosari. Bastet – jatorriz  
lehoi itxura zuena eta eguzkiarekin erlazionatzen  
zena– emankortasunaren jainkosa zen, Egiptoko etxeen  
zaindaria. Katu-ama itxuraz irudikatzen zen, mota  
orotariko materialez egindako figura txikietan.

Hemengo honetan erakusten duen jarrera hieratikoa da,  
baina oso dotorea. Buztanak gorputza inguratzen duen  
lerro bihurkorra irudikatzen du. Saman Menat izeneko  
lepoko sakratua darama. Hau Hator, Isis eta Bastet  
jainkosek erabilia zen. Menat-ek kate edo zintek lotutako  
xafla biribila zuen aurrealdean, eta sorbaldan jartzen zen  
kontrapisuak sostengatzen zuen.





“Elefanteek borrokatzeari utzi zioten. Zauriz josiak zeuden eta batetik bestera zihoazen, tronpak zerurantz altxatuz eta halabeharrezkoak ez zirela ematen zuten aieneak botaz: modu horretan, Libiatik irteteko erabakia hartzera bultzatu zituen zinaren babesak eskatzen zutelako uste izan zen eta, euren kexuen bidez, jainkoei mendekua eskatzen zietela. Hain zuzen ere, eraman nahi zituztenek inolako minik egingo ez zietela zin egin zuten arte, ez ziren itsasontzietara igo...”

*Dion Casio. Erromako Historia, XXXIX. Liburua*

---

---

# Ikuskizun hutsa



ntzinarotik, animaliak gizakion dibertimendu-iturri izan dira: indarkerian oinarritutako jostaketa batzuetan, eta ikuskizun atletiko bihurtutakoa besteetan.

Kreta **minoikoan**, ikuskizun nagusia zezenaren gainean salto egitea izan zen. Kutsu erritual eta politiko sakoneko erakustaldi publikoa zen. Irudikapenen araberan, osagai atletiko handia zuen ikuskizuna zen. **Knosoko** Jauregiak uharteko beste jauregien artean zuen gailentasun erlijioso

eta politikoa ziurtatzeko balio omen zuen.

Asiriar erregeek lehoiaren ehizan jardun zuten, zeina ezin hobeki kontrolatuta zegoen egundoko ikuskizuna zen. Basapiztiak parke itxi handietan gordetzen ziren eta erregeak ehiza zitzan bakarrik ateratzen zituzten karioletatik. Parkearen inguruan, ikusleek gorentasun politikoaren esanahi boteretsua zuen ikuskizunaz gozatzen zuten.

Aro Klasikoko greziarrek, oilar-jokoak entrenamendu gisa erabiltzeaz gain, borrokan ikasteko ere baliatu zituzten. Animalia hauek suhartasuna, irmotasuna eta indarra buru zuten gizonezkoen bertuteen bildumentzat jotzen ziren. Horrela izanik, erakusten zuten borrokarako grina eta indarra gerrari guztiek xede izan behar zituzten balore gisa ikusten ziren.

Hala ere, antzinateko ikuskizunik handiena erromatar zirkua izan zen. Inperioko txoko guztietatik ekarritako animalien sarraski odoltsuek dibertimendua bermatzen zuten. Ikuskizun horiek venatio izena zuten eta beraien arrakasta, hondarrean sakrifikatutako piztien kopuruek baieztatu bezalaxe, erabatekoa izan zen Antzinaroan.



## Greba edo Ocrea

Greba edo *ocreae*-ak gladiadore batzuen janzkerako funtsezko zati ziren. Bernaren aurreko aldea babesteko erabiltzen zituzten eta laburrak, ertainak edo luzeak izan zitezkeen, hemen ikus daitekeena bezalakoak. Greba luzeek orkatilatik belaunera arteko tartea estaltzen zuten.

Gladiadore talde bakoitzak janzkera ezberdina zuen. **Trazio** eta **hoplomachusek** greba luzeak zerabiltzaten. Bestiarioak, *venatio*-etako parte hartzaileak, arma eta jantzi bereziekin edota horiek gabe irudikatuta agertu ohi dira.

Ikusgai dugun grebaren erreproduzioaren erdialdean, suge bat irensten ari den arrano bat ikus daiteke. Erromatar artean ohikoa den irudi hau, heriotza gailen daitekeenaren ideia ikurra da, zeina zirkuetan gladiadoreen artean edo basapiztien aurka egindako borroketarako oso aproposa gerta daitekeen.



## Kaskoa edo Galea

Ponpeiako gladiadoreen barrakoietan egindako indusketetan, hiriko zirkuan erabilitako buru-babes, greba, ezpata eta bestelako jantzi eta osagarriak aurkitu ziren.

Hemen dugun hau, **Traziako** gladiadoreen ohiko buru-babes baten kopia da. **Mirmiloi** izenekoekin batera, traziarrak hondarrean hobekien hornituta zeuden borrokalariak ziren. Kaskoaren formari esker, K.o. 79. urteko Vesuvio mendiaren erupzioaren aurreko hamarkadetakoa dela jakin ahal izan da.

Kaskoaren ezaugarri nagusiak –eta horiei esker ere ezberdintzen da beste garai batzuetako babesengandik– burua estaltzen duen kupula nabarmenki borobildua, hegal zabala eta goiko aldean zulatuta duen bisorea dira. Bekoki-aldean, itsas-jainkosa baten irudia ikus daiteke eta goialdean grifo baten burua. Animalia fantastiko hau Patuaren jainkosa zen eta gladiadoreek zaindari zuten Nemesisen laguna zen. Kaskoak lumak sostengatzeko zulotxoak ditu bi aldeetan, horregatik, jokoan aurretik ospatzen ziren desfileetan erabiltzen zela uste da.



Hidrak Kimera beldurgarri, itzel, bizkor eta odol-gaiztoaz  
erditu zen, zeinak su menderaezina botatzen duen. Hiru  
ziren haren buruak: begi nabarreko lehoiarena bata,  
ahuntzarena bestea eta sugearena hirugarrena, dragoi  
indartsuarena. Lehoia aurretik, dragoia atzetik eta ahuntza  
erdian, sugar beldurgarri kiskalgarria jaurtitzen zuen.

*Hesiodo. Teogonia. Ceto eta Forcisen ondorengoak*

---

---



# Izaki FANTASTIKOAK



unstroak gizateria bezain zaharrak dira. Haitzuloen garaitik gaur egun arte, gure irudimenean eta amesgaizto izugarrietan agertzen

zaizkigu. Gizaki eta animalia izaera nahasten dituzten izakiak dira. Euren itxurak eta tamainak beldurgarri eta mehatxuzko bihurtzen dituzte askotan. Itzelezko indarra izaten dute eta ordena aldatzeko arriskuan jartzen dute beti mundua.

Naturaren indarra arrazionalizatu eta gizateriak aldakorra eta kontrolaezina den munduaren aurrean berezko duen kezka azaldu beharra, kreatura fantastikoen bidez, hau da, mezu sinboliko konplexuei forma emateko erabilitako izaki hibridoen bidez, adierazi izan dute gizatalde guztiek behin eta berriro.

Antzinako biztanleen ustez, izakiok jainkoen ahaide baziren, jainkozko izaera zutelako edo jainkotasunek sortuak zirelako, lehenengo pentsalari kristauek Jainkoaren antagonista bihurtu zituzten.

Horrela bada ere, etengabe agertzen dira artean, batzuetan gizakien beldur eta egonezin biziei erantzuna emateko, eta besteetan moralezko xede argiarekin. Era askotako adibideak daude eta kultura zein herrialde guztietan aurki daitezke bereziki greziar eta erromatar mitologiako izaki zenbatu ezinak ere. Azken hauek, munstroenganako zaletasun berezia zutela ematen du.



## HAURREN ETA FRUITUEN erliebea

Erliebe hau Avellanedako On Diegoren hilobia apaintzen zuen multzo dekoratiboaren zati baten kopia da.

Felipe Bigarny eskultore errenazentistarena da. Jatorriz frantsesa zen arren, Birganyk Gaztelako Koroan ibilbide arrakastatsua izan zuen eskultore gisa.

Animalia fantastiko baten gainean dagoen ume batek daraman kartelak konposizioa bi erregistrotan banatzen du. Honen atzean, beste antzeko izaki batek kartelaren atzeko aldean sostengatzen du. Azkenik, konposizioa orekatzeko, eskuetan frutaz betetako otzara duen haurrak hegodun kreatura bi ditu alboetan.

Izaki fantastikoak Errenazimentuko ohiko dekoraziozko motiboak izan ziren. Hemengo honetan grifoak ikus ditzakegu, gorputzaren goialdea arrano itxurakoa eta behealdea lehoiarena duten izakiak. Ekialde Hurbilekoak direla dirudi eta handik mundu klasikora zabaldu omen ziren. Erdi Aroko animalia sinboliko gisa erabili ziren, eta Errenazimentuan haien esanahi sinbolikoa zein dekoratiboa berreskuratu zen. Kristaumentzat, grifoak Kristoren izaera bikoitzaren ikur izan ziren, jainkozkoa (arranoa) eta gizatiarra (lehoia), baita Pizkundearen ideiarena ere.



## ZENTAUROEN BORROKEN BASOA

Zentauroen borroken edalontzia bezala ezagutzen dena – jatorrizkoa Prado Museoan dago – antzinako **kratera** baten beheko aldea da. K.a. I. mendekoa dela uste da eta K.a. V. mendeko modelo atenastarretan inspiratuta dagoela dirudi.

Baxuerliebean egindako azalean borrokalaria bikote bi agertzen dira irudikatuta: zentauro eta lapita bikote bi, alegia. Greziar mitologiako zentauroak, lapitak bezalaxe, Tesalia herrialdeko biztanle zahartzat jotzen ziren. Lehenengoak erdi gizaki, erdi zaldi ziren eta gizakiak animalia bihurtze hori, Antzinaroan, denok barruan gordetzen dugun indar kontrolaezin eta basatiaren irudikapena zen, hau da, arau sozialei men egiten ez zien zatiarena. Zentzu horretan, zentauro batek lapita bati haginka egiten dion uea ikus daiteke. Greziarrentzat portaera horrek aipatutako animalia-izaera erakusten zuen.

Esanahi horretan arreta jarritz, zentauroak aurkako baloreak haragitzen zituzten gizakien aurka borrokan irudikatzen ziren. Borrokaldi guztien artean, gehien irudikatu zenetako bat zentauro eta lapiten artekoa izan zen.



## SATIRO TXIRULA JOTZEN

Satiroak gizakien eta animalien ezaugarriak zituzten greziar mitologiako pertsonaia tipikoak ziren. Batzuetan, goiko aldea gizakiek bezalakoa zuten eta behekoa ahuntzarena. Besteetan, hemengo honetan bezala, oinetan duen animalia txikiaren bidez aipatzen da bere ahuntz-izaera.

Satiro gazte honek, faunoa erromatarrentzat, bera bezalako kreaturek ohiko duten pan txirula edo siringa jotzen du. Pan erdi-jainkoa zen –erdi ahuntza, erdi gizona ere bai–, zeina bertsio batzuen arabera, Hermesen semea zen. Haragikeriaren eta gizonezkoen sexu gehiegikeriaren sinboloa zen eta alderdi hau satiro eta silenoe kin -lehenengoen bertsio zaharra- partekatzen zuen.

Zentauroekin gertatzen zen bezalaxe, antzinako greziarrek kreatura hauetan, basatia eta zaharkituta egon arren, arau sozialen eraginez gizakion barru-barruan geratu zen guztiaren isla ikusten zuten.



## Silosko kapitela

Santo Domingo de Silosko monasterioaren ekialdeko aldean kokatzen den kapitel honen kopian Erdi Aroko izaki fantastikoen erabileraren oso adibide interesgarria ikus daiteke. Arte Erromanikoa, itxuragabeko munstroen munduaren esanahi espiritualarekin itsutuz, izaki hibrido eta fantastikoei atxiki zitzaion inolako beste arte kristaurik bezala.

Kasu honetan, kapitela nekez identifikatzen diren izakiekin apaintzen da. Eskorpioi edota musker hegadunen tankera dituen izakiek lehoien itxura duten animaliei bizkarretan koska egiten diete. Kokatritz izena duen sorkari mitikoak izan zitezkeen. Animalia hauek krokodilo hagadun antza dute eta, askotan, basiliskoekin parekatzen dira.

Edozein kasutan, Erdi Aroko artean, kreatura hibrido hauek bekatuan erortzearen eraginen seinale ziren.

# Glosarioa

## *Abidos*

Egipto Garaiko herri santua. Osirisen Hilobia bertan zegoelako izan zen famatua.

## *Asurbanipal*

Asiriari inperioko azken errege handia. K.a 668-627 urteen artean izan zen buruzagi.

## *Bizitzaren zuhaitza*

Kultura askotan, haraindiko mundua, lurra eta zeruaren arteko lotura, zein bizitzaren jatorria eta garapena irudikatzeko erabili izan den ikurra.

## *Donespenaren adarrak*

Minosko berezko dekoraziozko motiboa, zeinak Brontze Aroko Kretako erlijioaren animalia garrantzitsuena zen zezen sakratuaren adarrak eskematizatzen dituen.

## *Egipto Beherea*

Menfistik Mediterraneora arteko Egiptoko iparraldeko zatiak hartzen zuen izena, zeinak Niloaren Delta barne hartzen zuen.

## *Elamdarra*

Elam zibilizaziokoa zena. Herrialde hau egungo Iraneko hegoaldean kokatuta zegoen. Elamiarren historia III. milurtekoa eta K.a. 539 urtea bitartean garatu zen, orduan, persiar inperioaren zati izatera igaro baitzen.

## *Egipto Garaia*

Antzinako Menfistik, Kairoren hegoaldean, Niloaren lehenengo ur-jauzira arte, Aswanen, zabaltzen zen Egiptoko hegoaldeak hartzen zuen izena.

### *Goi Paleolitoa*

Paleolitiko edo Harri Aroko azken garaia. Azken glazioazioaren bukaerarekin batera gertatu zen. Garai horretan gizaki berria agertu zen, hots, Homo Sapiensa.

### *Heliopolis*

Antzinako Egiptoko hiria, herrialdeko iparraldean kokatuta zegoena, Kairoko ipar-ekialdean. Egiptoarrez, Iunu zuen izena. Greziar izena eguzkiaren jainkoa zen Rarenarengandik eratorria zen, herri hau izan baitzen jainko honen kultuaren gunea.

### *Hoplomako*

Erromatar gladiadore mota, zeinak izena antzinako greziar infanteriako soldaduengandik hoplitengandik, alegia, hartzen duen, biek erabiltzen zuten babesak oso antzekoak baitziren.

### *Knosos*

Kreta uhartearen iparraldean kokatutako Brontze Aroko jauregi-komplexua. Minostar zibilizazioaren gunerik garrantzitsuen izan zen.

### *Kratera*

Ura eta ardoa nahasteko erabiltzen zen edukiera handiko ontzi greziarra.

### *Labrys*

Brontze Aroko Kretako irudietan askotan agertzen denez, Minosko zibilizazioarekin erlazionatzen den ertz bikoitzeko aizkora. Ez dakigu zein den bere esanahi zehatza, baina dirudienez erritu erlijiosoekin zerikusia du.

### *Madalein Aroa*

Goi Paleolitoko azken kulturetako bat. Izena Dordoinako Madeleine kobazulotik hartzen du.



### *Minostar*

Brontze Aroko kretar kulturarekin zerikusia duena. Izena Arthur Evansek erabili zuen lehen aldiz, Knososko jauregian indusketak egiten ari zenean, Minos errege mitikoarekin erlazionatu zuelako.

### *Mirmiloia*

Potentzia handiko gorpuzkera eta babes indartsuak zituen erromatar gladiadorea. Inperioaren garaiaz geroztik, galiarrak ordezkatu zituzten.

### *Mizenastar*

Brontze Aroko azkenaldiko kultura heladikoarekin zerikusia duena. Izena garai hartan garrantzitsuena izan zen Mizenas hiritik hartzen du.

### *Ramses II.a*

Egiptoko XIX. dinastiako hirugarren faraoia. 66 urtez izan zen buruzagi, gutxi gorabehera, K.a. 1279tik 1213ra bitartean.

### *Saistarren garaia*

XXVI. dinastiaren erregealdiari erreferentzia egiten dion terminoa, zeinak Saisen izan zuen hiriburua, Deltan hain zuzen ere. Egiptoar jatorriko azkena izan zen.

### *H. Schliemann*

Arkeologo zaletu gisa aritu izan zen prusiar aberatsa. Antzinako Troia aurkitzeagatik eta bertan indusketak egiteagatik egin zen ospetsu. Horren ostean, mizenastar zibilizazioa aurkitu zuen.

### *Seti I.a*

Egiptoko XIX. dinastiako bigarren faraoia, Ramses IIaren aita. K.a. 1294 eta 1279 urteen artean izan zen errege.

### *Traziar*

Europako hego-ekialdeko herrialdeetan (egungo Grezia, Bulgaria eta Turkiako zati baten) kokatuta zegoen Traziatik izena hartzen zuten erromatar gladiadoreak. Hasiera baten, euren armak eta metodoak erabiliz borrokatzen ziren aipatutako herrialdeko gatibuak izan omen ziren.

# ANTOLATZAILKAK



BILBOKO BERREGINEN MUSEOA  
MUSEO REPRODUCCIONES BILBAO



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

# LAGUNTZAILKAK



MUSEO NACIONAL  
DE ESCULTURA

Antolatzailea: Bilboko Artelan Berreginen Museoa

Komisarioa: Itziar Martija

Ekintzen koordinazioa: Saioa Barrenetxea

Laguntzaileak

Eusko Jaurlaritza. Kultura Saila

Euskal Museoa

Museo Nacional de Escultura. Valladolid

Zaharberritzea

Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Kontserbazio eta

Zaharberrikuntza Arloa